

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4791

EBAZPENA, 2023ko urriaren 10ekoa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, EAEko elkarte edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko 2023ko dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariaren 2023ko maiatzaren 10eko Ebazpenaren bidez, EAEko elkarte edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeko garatzen dituzten proiektuak diruz laguntzeko deialdia egin zen 2023rako.

Ebazpen horren 13. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatutako erakundeek aurkeztutako eskabideak ez onartzea, eranskinean bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko laguntzak II. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei esleitzea, aipatutako eranskinean zehazten diren zenbatekoen arabera. Laguntza horiek minimis izaera dute, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduari lotuta daude (EBAO, L 352. zk., 2013-12-24koa).

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiokete Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Bilbao, 2023ko urriaren 10a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.

2023ko urriaren 20a, ostirala

I. ERANSKINA
BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoia
003	Goldatu Elkartea Soziokulturala	Frankismoaren inpunitatea epaitegira	Ez du betetzen deialdiaren 3.1 artikuluan ezarritakoa, ez da diruz laguntzeko moduko jarduketa bat.
017	Gogoan Sestao Elkartea	Edición del libro «Apaiz kartzela-La cárcel de cura»	Atzera egin duela ulertzen da, eskatutako dokumentazio zuzentzailea ez aurkezteagatik (deialdiaren 12. artikulua).
021	Tekum Fundazioa	El impacto de la represión franquista sobre el tejido empresarial vasco	Eskaera alde batera utzi da, bi aldiz aurkeztu delako.
022	Fundación Otxoa de Barandika	La ballena de Bermeo	Ez du betetzen deialdiaren 4.1 artikulua. Erakundearen helburuen artean ez dago memoria historikoa eta demokratikoa berreskuratzea.

2023ko urriaren 20a, ostirala

II. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
018	Asociacion Cultura Abierta-Kultura Irekia	Desarrollo del museo virtual. Bilbao Bizkaia People's Museum	7.960,00
007	Hamaika Bide Elkartea	1936ko erbesteko musika nazioarteko xviii. batzarra	4.320,00
023	Asociacion de Investigacion por la Paz Gernika Gogoratuz Gernika	EDUKIGOGO. Generación de contenidos divulgativos para una pedagogía de la memoria	7.249,64
015	Harresi Kulturala Elkartea	Recuperación de la memoria histórica en el Valle de Trucios -de la posguerra a la democracia-	4.083,75
014	Asociación Moviéndote por la Integración y Participación Ciudadana	Movimientos sociales durante la dictadura en Euskadi. Voz y Memoria de un pueblo silenciado	3.478,00
004	Leizaola Fundazioa	Gonzalo Nardiz Bengoetxea erakusketa	6.828,24
016	Asociación Cultural Marea	Mujer y Memoria Histórica	6.700,00
013	Asociación Moviéndote por la Integración y Participación Ciudadana	Narrativas de la memoria. Reivindicando el recuerdo de las víctimas de la Batalla de Bilbao	3.366,00
010	Sabino Arana Fundazioa	Euzko Mendigoizale Batza: mendirik mendi.	6.500,00
009	Memoria Gara Elkartea	Investigación y escritura de un guión documental sobre Isaac Puente Amestoy.	5.213,00
024	Euskadiko Gudontzidi Laguntzailearen Partaide, Senide Ta Lagunen «Matxitxak» Kultur Elkartea	Homenaje a Joaquin de Egia en Reino Unido	3.558,40
002	Asociación Pausumedia Elkartea – Komunikaziorako Eskubidea-Derecho a la Comunicacion	1936-1942. Euskal erbestearen aurpegiak Frantzia	3.150,00
019	Pipergorri Kultur Elkartea	LXXXIII.º Aniversario del cierre del hospital militar de prisioneros de guerra (HMPGG) de Gernika (1938-1940)	5.040,00
001	Gerediaga (Durangaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea)	Durangoko bonbardaketetan hildakoen ikerketa: hirugarren fasea	3.843,00
011	Sabino Arana Fundazioa	2023eko urteko egitaraua	4.800,00
008	Asociación Republicana Irunesa	Investigación, Formación, Divulgación y Homenajes	1.040,06
005	Fundación Ramón Rubial/Ramon Rubial Fundazioa	Florencio Iracheta Quilez Vida y muerte de un socialista irunés (1895-1938)	6.450,00
006	Fundación Ramón Rubial/Ramon Rubial Fundazioa	Guillermo Torrijos Goyarzu El líder histórico del socialismo donostiarra (1876-1942)	6.450,00
012	Fundación Ramón Rubial/Ramon Rubial Fundazioa	UGT8 Los héroes de Artxanda-Santo Domingo	6.000,00
020	Tekum Fundazioa	El impacto de la represión franquista sobre el tejido empresarial vasco	4.000,00
GUZTIRA			100.030,09